

# Kahina eta Tin Hinan

Emakume heroikoak Ipar Afrikako kultura historikoan


JONATAN PÉREZ MOSTAZO

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA


ORCID 0000-0002-9081-1477

### KAHINA:

Afrika iparraldeko konkista kontatzen duten iturri arabiarrek al-Kahina ezizeneko emakumea aipatzen dute, VII. mendean bizantziar edota bereberren tropak Omeiatar kalifen armadaren kontra gidatu zituena. Mendek aurrera egin ahala, emakume buruzagi hau Magrebeko iruditegi historikoen ikono garrantzitsu bihurtu da, batez ere Algerian, Erdi Aroko testu historiografikoetan ageri diren aipu eskasetatik eta ahozko memorian helarazitako irudietatik abiatuta.



*Kahinari monumentua (Khenchela, Algeria)*



*Emakume berebera (E. Lacomteren margolana, 1870)*

### Kahinaren harrera

Frantziar historiografiak, kolonia garaian eta kolonia aurretik, erromanizatutako bereber erregina kristaua ikusi zuen, Islam inbaditzaileari aurre egin izan ziona. Frantziarren kontrako mugimendu anticolonialistak, berriz, atzerriko potentziaren aurkako sinbolo moduan hartu zuten. Horrez gainera, eskualdeko juduen artean ere ikonotzat hartu dute zenbait alditan, baina batez ere amazigh-en artean egin da ospetsu, Magrebeko estatuek bultzatutako nazionalismo arabiarzalearen kontra, kolektibitate honen askatasunaren aldeko mendeetako borrokaren adierazle. Gaur egun, eskualdeko feminismoak ere bere egin du Kahinaren irudia.

### TIN HINAN

Kontakizun mitikoei jarraituz, Tin Hinan zenbait tuareg tribuetako amalehena izan zen. Ibn Khaldun, XIV. mendeko historialariak, Tiksi izeneko erreginaren inguruko kondaira helarazten du, aurrekoaren oso antzekoa. Bertsio batzuei jarraituz, Tin Hinan musulmandarra zen; beste batzuen aburuz, XVII. mendearen aldera bizi izandako pertsonaia historiko batean dago inspiratuta. Hala ere, 1925ean indusketa arkeologikoek elezarrek Tin Hinan-ekin lotzen zuten muino batean IV. mendeko hilobiratze monumentala aurkitu zuten, Argeliako Abalessa kokalekuan. Orditik aurrera, aztarnok emakume mitiko honen hilobitzat hartu dira tuaregen artean.



*Tin Hinanen hilobiaren maketa (Bardo Museoa, Algeria)*



*Tin Hinan erregina (Hocine Zianiren margolana)*

### Bibliografia

Camps, Gabriel (1974). L'âge du Tombeau de Tin Hinan, Ancêtre des Touareg du Hoggar. *Zephyrus*, 25, pp. 497-516 orr.  
 Hannoum, Abdelmajid (2001). *Colonial Histories, Post-colonial Memories: The Legend of the Kahina, a North African Heroine*. Heinemann.  
 Pister, Danielle (2018). Kahina, la reine palimseste. *Revista Argelina*, 6, 33-52 orr.